



Neriaô, lurraren semea



ETXERATZETA ETA GIZARTE
DIKETAFO SAILA
Gizarte Gurekiko Sektoreondotza
Guzuzen Lanbidegizakako Zuzendutza
DEPARTAMENTO DE VIVENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 komikiz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (posterrak, mandalak, sakontzeko koadernoak...) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

11. Posible duzu komiki hau irakurtzea? (2008)
12. Emakumeok ere hegalaria. (2008)
13. Lurra: planeta arriskutusa haurtzaroarentzat. (2008)
14. Zure osasunerako, emakume! (2008)
15. Josephine: Afrikan heriotzaren aurpegia. (2008)
16. Neriaõ, lurraren semea. (2008)

Egilea: Javier de Isusi García
Argitaratzaileak: **ALBOAN**
Itzulpena: Elhuyar
Lege-Zenbakia: BI-705-08
ISBN: 978-84-612-1352-8
Azalako diseinu: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

www.alboan.org

Iruñea


Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Bilbo

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda kalea, 7, 4. I • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org



Ustekabean agertu zen Neiarô, halako batean. Oihanetik etorri zen, katagorri edo tapir baten antzera, koadro batetik irteten ari den pertsonaiaren gisara. Pertsonaia, ordea, ez dago koadroan; HURA da koadroa. Pertsonaia kenduz gero, zuloa, hutsa geratzen da koadroan. Osotasun berekoak dira pertsonaia eta koadroaren hondoak.

Nola adieraz nezake? Oihanean, oihana zen Neiarô; ez zegoen bereizterik hura eta mundua. inongo bereizketarik haren eta munduaren artean. Amazonaseko Garapen Integraleko Zentroaren obretara etorri zenean sentitu zen, bat-batean, mundutik kanpo, bere baitatik at. Biluzik sentitu zen, lehenbizikoz.

Yanipuna etniakoa zen. Antropologoa naizenez, badut haren hizkuntzaren berri, aise hitz egiteko gauza ez banaiz ere. Elkarrizketa batzuk izan nituen harekin, baina uste dut beti ez niola garbi ulertzen esaten ari zitzaidana.

Haren historia hobeto ezagutzea gustatuko zitzaidakeen.


Ez nuen, ordea, astirik izan .

Neiarô, lurraren semea



MINIK
EMATEN
DIZU?

EZ



ESAN,
YAKU...

ZER AMETS
IZAN DUZU
BART GAUEAN?

EZ DUT
GOGORATZEN...



HIRU EGUNEAN, HAMAR
LAGUN AZALDU DIRA
GORPUTZ-ATALEN BAT
EBAKITA. AZKENA, YAKU.
NOR IZANGO OTE DA
HURRENGOA?



YANARARI ESKUINEKO
HANKA DESABERTU
ZITZAION ATZO

SANGU TXIKIAK JADA
EZ DU HATZIK ESKUETAN

ETA TOMO
SUDURRIK GABE
ESNATU ZEN
HERENEGUN.

BAINA EZ DAGO EZ ZAURI-
EZ ODOL-, EZ INDARKERIA-
AZTARNARIK. ZER ARI OTE
DA GERTATZEN?



ESPIRITU
AHALTSUREN BAT,
SEGURU

ARRASTORIK UZTEN
EZ DUEN
DEABRUREN BAT

LOTAN GAUDELA, GURE
AMETSETAN SARTU ETA
JARDUTEN DA, BABESTERIK
EZ DUGULA



ZER DEABRU
DA HORI?


BAI, GARRANTU,
ESABUZU. INOIZ
EZ DU ENTZUN
HORRELAKO
DEABRUEN
BERRIRIK



NIK... BEHIN
BAKARRIK...
ASPALDI...

ASSURAI DU IZENA

BAINA EZ DAKIT
NOLA AURRE
ESIN HARI



ORDUAN...?

ORDUAN, "HARK"
BAKARRIK LAGUNDU
AHAL DIGU



SWARANTU, ZER
EGIN BEHAR
DUGU "HURA"
AURKITZEKO?

MEREZI BADUGU,
"HARK" AURKITUKO
GAITU GU



A, ETA
NON BIZI
DA?

OIHANAREN
BIHOTZEAN

HAU DA,
NORBERAREN
BIHOTZEAN



NOLA? EZ
DIZUT
"ULERTZEN..."

"HURA",
"URREZKO
HITZAK ESATEN
DITUENA"

INORK EZ
DAKI,
ZEHAZKI,
ZER DEN:
SORGINA,
ESPIRITUA...



DENBORA BEZAIN
ZAHARRA DA, ETA
NAHIERARA
AGERTZEN ETA
DESAGERTZEN
DA. NONAHI EGON
DAITEKE, ETA,
ALDI BEREAN,
INON EZ



A ZER
NAHASPILA,
SWARANTU...

...USTE DUT
EZ DUDALA
OSO ONDO
ULERTZEN



EZ KEZKATU.
YAJÉ* ANAIK
LAGUNDUKO DIEU

HOR EGIN BEHAR
DUGU YAJÉAREN
ZEREMONIA?

* AMAZONIAKO KULTURA INDIGENETAN ASKO ERABILTZEN DEN
LANDAREA DA YAJÉA. BOTERE MAGIKOAK OMEN DITU.



BAI



HEMEN EGINGO DUGU LO.
PIZTU SUA. BITARTEAN,
IRITSI GARELA JAKINARAZI
BEHAR DIOT OIHANARI

KON-
FORME



HMMH...

HMMH...


HMMH...



O, OIHANEKO ANAI-ARREBOK.
HEMEN GAITUZUE NEIARÒ,
NIRE IKASTUNA ETA NI,
EWARANTO, ZUEN ARTEAN
GAUA IGAROTZEKO ASMOZ

ZUEN ONESPENA ETA
HARRERA ESKATZEN
DUGU

EZ DUGU
HARTUKO ZUENGANDIK
BIDEAN AURRERA EGITEKO
BEHAR DUGUNA BAINO GEHIAGO,
ETA ZUEN ESKUZABALTASUNAK
EMAN NAHI DIGUNA



LURRETIK SORTZEN ZARETEN ANAI-ARREBOK,
LANDARE, ZUHAIXKA ETA ZUHAITZOK;
LURREAN NARRASTEN ZARETEN
ANAI-ARREBOK, HAR ETA SUGEOK;

LUR GAINEAN KORRIKA IBILTZEN ZARETEN
ANAI-ARREBOK, EHIZTARI
ETA HARRAPAKINOK;

HEGAKA IBILTZEN ZARETEN ANAI-ARREBOK,
INTSEKTU, HEGAZTI ETA SAGUZARROK;


LURREAN BIZI ZARETEN ESPIRITU GUZTIOK;

ANAI-ARREBA GUZTIOK, ESKATU BEHAR
DUZUENA, ETA ESKAINI BEHAR DUGUNA;

ZUEN ONGIZATEA GURE ONGIZATEA IZANGO DA,
ETA GURE ONGIZATEA, ZUENA


DENOK BAIKARA GAUZA BERA
DENOK BAIKARA BAT

GORPUTZ BAKAR BATEKO ATALAK
BAINO EZ BAIKARA



GWARANTU!
BEGIRA!
BADUGU
AFARIA!


ZURAREN
HARRAK DAUDE
HAMAKAK ESEKI
DITUDAN
ZUHAITZEAN!



OIHANAK
ENTZUN
EGIN DIBU

BAINA GAUR BARAU
EGINGO DUGU, NEIARÒ.
YAJERAKO PRESTATU
BEHAR DUGU

OOOH...





GEZURRETAN
ARI ZARA,
NEIARÒ

EZ DIZUT
HITZERDI
BAT ERE
SINESTEN



ZIN DEGIZUT,
SWARANTU!

"HURA" ZEN,
"URREZKO AHOA
DUENA" EZ DUT
INOIZ IKUSI HALAKO
EMAKUMERIK! HITZ
EGITEN ZUENEAN,
BERRIZ, URREA
ZERION AHOTIK!



GALDETU NION NOLA EGITEN
DION AURRE ASSURAIRI, ETA
ERANTZUN ZIDAN HONEK
EZ DUELA ZER IKUSIRIK
ASSURAIREKIN

HMM...

ETA... ETA DENOK
AHAZTU DUGULA ZER
GAREN, ZER
BERTATZEN ARI DEN
ULERTZEKO GAI EZ
BAGARA. ETA ZU
ZINELA...



ESAN ZUEN ZU...

ZER!

BENO,
ESAN
ZUEN
ZURE
HITZAK
AHAZTU
EGIN
DITUZULA

A! ORDUAN, INOZOA
NAIZELA ESAN ZUEN,
ZUK DIOZUNEZ!
EDERRA KONTUA!

ETA ZER HITZ
AHAZTU DITUT,
BADA?





OIHANARI
EGITEN ZAION
ABURRAREN
AMAIERA

A! AHAZTU EGIN DUT,
ORDUAN, DENOK BAT
GARELA?

AAAAA!



EZ DIZU LOTSARIK
EMATEN? GEZURTIA!

AI, AI... EGIA
DA! ZIN
DEGIZUT!

ESAN ZUEN ULERTZEKO
GAI EZ BASARA,
URRUTIRAGO JO BEHARKO
DUGULA, HARIK ETA
IKUSTEN DUGUN ARTE



A, BAI? BADA, HORIXE EGIN BEHAR DUGU!
ZOAZ HEMENDIK URRUTI! OSO URRUTI!
ZOAZ AGUARUNENGANA!

IAU!



EZ! HOBETO, ZOAZ PAPALAWIENGANA! SOINEAN
OIHALAK ERAMAN OHI DITUZTE, ETA BURDINAZKO
HORTZEKIN ZULATZEN DUTE LURRA!

ZOAZ HAIENGANA, ETA EZ ITZULI
ZURE "URREZKO AHOAREN" ESALDI
MIRESGARRIENTZAKO ERANTZUNIK
AURKITU ARTE!



HARROPUTZA!
GEZURRONTZIA!

ALDE
HEMENDIK!

BA... BAINA,
GWARANTU!
NIK... AU!




O, OIHANEKO
ANAI-ARREBOK...



HEMEN
NAUKAZUE NI,
NEIARÒ, ZUEN
BABES ETA
ABEGI ESKE


EZ DU HARTUKO
ZUENGANDIK BIDEAN
AURRERA SEGITZEKO
BEHAR DUDANA BAINO
GEHIAGO...

...ETA ZUEN
ESKUZABALTAS
UNAK EMAN NAHI
DIDANA




AIREKO, URETAKO
ETA LURREKO
ANAI-ARREBOK


ESKATU
BEHAR
DUZUENA,
ETA ESKAINI
BEHAR
DUDANA




ZUEN ONGIZATEA
NIRE ONGIZATEA
IZANGO DA, ETA
NIRE ONGIZATEA,
ZUENA



DENOK GAUZA
BERA BAIKARA



DENOK GARA
BAT






DENOK GAUZA
BERA BAIKARA...


DENOK GARA BAT

GORPUTZ BERAREN
ATALAK BAINO EZ GARA





GELDI! EZ JARRAITU! EZ EZAZUE MUNDUA SUNTSITU!



IKANA ON TUT! ABETA A NAWE!

ZER DA HORI?

ARRAIOA! INDIAR BAT!




ZER EGINGO DUGU? BERTAN HILKO DUGU?

EROTUTA ZAUDE, ALA?

MUTIKO INDIAR BATEK NESKA INDIAR ASKORENGANA ERAMAN GAITZAKE

KAR, KAR, KAR



KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR, KAR,

BURUTIK EGINDA DAUDE! BARREZ ARI DIRA!



INUU TATÁ MII NÉ!

ZER DUZU? ERLOJUA OSTU DIZUTE, ALA?

BEGIRA! TXIMINOA EMATEN DU!


KAR, KAR! HITZ EGIN EZAZU ULERTZEKO MODUAN, KONTXO!



EZ DUZUE IKUSTEN, ALA? GAUZA BERA GARA DENOK! MUNDUA SUNTSITZEN BADUGU, GEURE BURUA SUNTSITZEN ARI GARA!

JA JA JA JA







Gure artera etorri zenean, egun batean esaten zuen besorik ez zeukala. Bistakoa zen, ordea, bazeukala. Handik gutxira, hankarik ez zeukala zioen, baina hantxe segitzen zuen haren hankak. Hitz egiteko modu bat zela pentsatu nuen, azkenik, baina benetan ematen zuen ez zuela hanka ikusten.

Zioenez, gure mutilak zuhaitz gehiegi mozten ari zirelako desagertu zitzaizkion besoa eta hanka. Mundua suntsitzen jarraitzen bagenuen –zioen–, gure gorputz-atalak desagertuz joango omen ziren, bata bestearen ondotik, heriotza iritsi arte.

Jakina, saiatu nintzen azaltzen esaten zuenak ez zuela ez buru ez hankarik, gure mozte-lana oso txikia zela, oihanaren tamainarekin alderatuta, ingurumena zaintzeko NBERen arauak zorrotz betetzen ari ginela. Baina, noski, yanipuneraz ez dago hitzik “garapen-proiektua”, “jasangarritasun-irizpideak” eta “ingurumen-inpaktu kontrolatua” adierazteko.

Esan nion aspaldi egongo ginela denok elbarri egia balitz berak zioena. Isilune luze baten ostean erantzun zidan.

Penaz begiratu zidan, solaskideari egia desatsegin bat adierazi nahi ez dionaren antzera. Hitz egin zuenean, berriz, baimena eskatuz bezala aritu zen. Haren hitzek, ordea, barrena izoztu egin zidaten.

Esan zuen ahaztua genuela nor ginen, ia-ia ez genuela gizaki-itxurarik ere. Esan zuen gorputz-atal gehienak falta ditugula, baina haien ordeztu makinak erabiltzen ditugula. Horregatik ez omen dugu asmatzen zer ari den gertatzen.

“Ez zarete ohartzen denok bat garela –zioen–. Zuhaitzei ez diezue minik egiten; zeuon buruari egiten diozue”.

Erantzuteko beharra sentitu nuen, eta, zer nioen askorik pentsatu gabe, esan nion kanpamentuko guztiok bikain geundela osasunez, eta bera zela gaixo bakarra.



Isilik geratu zen puska batean, eta nik neure oharrak idazten jarraitu nuen. Handik pixka batera, berriro mintzatu zen:

“Mundua suntsitzen jarraitzen baduzue zuen obrekin, Ama Lurraren atalen orde zuei iruditzen zaizkizuenak jartzen badituzue, zuen gorputzetan ere nabarituko duzue horren ordaina”.

Entzun nizkion azkeneko hitzak izango ziren. Biharamunean hil zen, bat-bateko bihotzekoak jota.

Zalaparta handia eragin zuten Neiarôren etorrerak eta bat-bateko heriotzak. Izan ere, inork ez zuen haren tribuaren berririk. Gure herrialdean ez ezik, mundu osoan hedatu zen albistea.

Orain, geldirik daude obrak, eta antropologoak, geografoak eta zenbait erakunde eta GKEtako teknikariak etorri dira, lurraldearen banaketa beste era batera egitera, indigenak babesteko egungo politikaren arabera. Garapen Zentroko obrak ere koloka daude.

Sarritan pentsatzen dut Neiarôk esan zidan hartaz, eta honetaz ohartu naiz: azkeneko elkarrizketa hartan, minbiziaren definizioa egin zuen, berak jakin gabe. Harriturik nauka haren hitzen argitasunak. Gure garai honetako gaixotasun larri hori, gizakioi horren ankerra iruditzen zaiguna, erabateko logikaz ageri zaigu Neiarôren hitzetan: planetaren minbizia garelako jasaten du minbizia gure gizarteak, etengabe hazten eta tumoreak eta metastasiak sortzen ari den organismoa garelako. Minbiziak egiten duena egiteko zorian gabiltza gu ere, hau da, partaide garen organismoa akabatzeko zorian.

Dirudienez, indigenen komunitateetan ez da inoiz minbizirik izan, gure gizartearekin harremanetan jarri aurretik behintzat.

Nahuatlen esaera bat ekarri dit horrek gogora: “Gizonezkoak eta emakumezkoak nolakoak, halakoa izango da Lurra”. “Primitiboak” deritzegun kultura indigena gehienetan ageri da antzinako pentsaera hori. Beharbada, alderantziz ere adieraz genezake: “Lurra nolakoa, halakoak izango dira gizon eta emakumeak”.

